

BATASUNAREN LEGEZ KANPORATZEA

Egibar: «PPk trabatu nahi badu ere, burujabetza prozesua azkartzen ari da»

Lan politikoan jarraituko duela ziurtatu du Batasunak Baionan

Batasuna legez kanporatzeko prozesua dela eta giro politikoa baikorra ez den arren, abertzaletasunetik begiratuta «ikuspuntu historikoa» dela adierazi zuen atzo EAJko bozemaileak, «burujabetza prozesua» azkartzen ari delako. Batasunak, berriz, lan politikoari eutsiko diola ziurtatu zuen atzo Baionan egindako mobilizazioan. /4-11



LUIS JAUREGIALTZO/ARGAZKI PRESS

21 EGOITZA. Ertzaintzak, Guardia Zibilak eta Espainiako Poliziak 21 lokal itxi dituzte jada.

INKESTA

Kezka eta zalantza /10-11

ITSAS EZBEHARRA BREITAINIAKO ITSASOAN



HO/AP

Bow Eagle zamaontzia, Britainiako itsasoan. Kolpearen ondorioz isuriak izan ditu.

Erruduna dela aitortu du zamaontziaren jabeak

Bow Eagle zamaontziaren jabeak onartu egin du iragan igande gauean *Cistude* Frantziako arrantzontzia jo eta hondorarazi zutela. Lau arrantzale galdu ziren itsasoan horren ondorioz, tartean hiru euskal herritar, eta hiltzat jo dituzte *Cistude*-ko gainerako arrantzaleek. /18

IKURRINAREN AUZIA



UPNk ez du nahiko sostengurik izango Sinboloen Legea aldatzeko

Aldaketak bizikidetzaz gaitzotu eta ez dagoen arazoa eragingo duela uste dute oposizioko alderdiek /13

EUSKARA NAFARROAN

Batzarrek, EA-EAJk eta IUk azalpenak eskatuko dituzte dekretu berriaz

Aurreko dekretuaren gainean ere azalpenak eskatuko dituzte; besteak beste, indargabetu arte zenbat lanpostu deialdi egin diren eta zenbat bide seinale aldatu diren jakin nahi dute. /14

IRAKEN AURKAKO EGITASMOAK

Iraki erasotzeko NB Eren sostengurik ez duela esan die Annanek AEBei /20-21

ELKARRIZKETA



AGUSTIN ARANZABAL
Realeko kapitaina

«Hemengo jokalariek gazteek beti edukiko dute jokatzeko aukera» /27